

Unax Aldanondo Garmendia

D maila • Aipamena

Kaixo!

Ni Unax Aldanondo Garmendia naiz 13 urte ditut eta Beasainen bizi naiz. Beasaingo Andramendiko ikastolako DBH1 mailan nabil. Asko gustatzen zait futbola zein esku pilota, musika ere gustuko dut eta saxofoia jotzen dut. Lagunekin egoten saiatzen naiz eguneko zatirik handienera.

Ilusio handiarekin idatzi dut nire ipuina, espero dut asko gustatzea.



AITONAREN ISTORIOAK

Bazen behin, Jon izeneko 9 urteko mutiko bat; Jon Oñatin bizi zen bere gurasoekin eta asko maite zuen aitonarekin. Izan ere, Joni, gauetan sutondoan eserita egotea eta bere aitonaren istorio zirraragarriak entzutea ziren gehien gustatzen zitzaizkion denbora pasak. Aitonak antzinako istorioak kontatzen zizkion, lamiak, Tartalo, sorginak, Basajaun eta abar agertzen zirelarik. Jonak ez zituen kontu horiek sinesten baina ondo pasatzen zuen aitonaren ahotik entzuten.

Gau hotz batean Jon bere gelan zegoen etxeko lanak egiten.

- Afaltzera!- deitu zion amak.

- Orain noa- erantzun zion.

Jon ziztu-bizian afaltzera joan zen, bazekielako afaldu ondoren aitonaren istorioa zettorrela. Afaldu ondoren sutondoan jarri ziren aiton-bilobak eserita eta esan zion Jonak:

- Zeri buruz hitz egingo didazu gaur?

- Paleolitoari buruz nahi baduzu- esan zion aitonak ahots gozoz.

- Zer da hori?- galdetu zion Jonak jakin-minez.

- Orain kontatuko dizut- erantzun zion aitonak.

- Paleolitoa historiaurreko gizakia sortu zeneko lehen aroa da; duela 2.500.000 urte hasi zen. Bertan lehen gizakiak tribuetan bizi ziren, hau da, gutxi gorabehera 20 bat pertsonako taldeetan. Nomaden bizimodua zeramatenek, ez zuten etxe finkorik; kobazuloetan bizi ziren eta ehizatu beharreko animalien atzetik ibiltzen ziren. Toki batean animalia gutxi zeudenean, euren gauzak hartu eta beste bizitoki berri bat aurkitzen zuten, hori da nomadak izatea.

Tribuaren barruan lan desberdinak zeuden: batzuk ehiztariak ziren, beste batzuk janaria prestatu eta errekatik ura ekartzen zuten, beste batzuk ehizatzekeo tresnak egiten zituzten ... Horrelakoa zen beraien bizitza.

- Aitona, paleolitoko bizitza oso zirraragarria da!!!- esan zion Josuk.
- Bai, nahi baduzu asteburu honetan mendira joango gara haien modura ibiltzera- esan zion aitonak.
- Benetan aitona? Primeran!- esan zion Jonek pozez irrikan.

Larunbata iritsi zen, eta aitona eta Josu goizean goiz mendira abiatu ziren. Motxilan denetik zeramaten: aizkora, soka, sua egiteko harri bereziak... Ordu batzuk ibili ondoren, errekatxo batek zeharkatzen zuen baso handi bat aurkitu zuten. Eta orduan aitonak esan zuen:

- Hemen egingo dugu txabola.
- Zergatik?-erantzun zion Jonek.
- Badirudi hemen gizakirik ez dela aspaldian ibili, arrantzatzekeo erreka dugu, basoa handia da eta animaliaz betea dirudi ...

Orduan, aizkorarekin makila lodi batzuk moztu ondoren, gertu zeuden bi zuhaitzen adarrak aprobetxatuz, aterpe antzeko bat egin zuten. Ordu gutxitan, euren bizitokia izan zitekeena amaitua zeukaten. Lanaren ondoren deskantsatzen zeudela, bat-batean Jonek zerbait sumatu zuen sasi artean. Orein bat zen! Aitonak aizkora eta Jonek lantza moduko makil bat hartuta, oreinaren atzetik lasterka abiatu ziren. Oreina, ordea, askoz azkarragoa zenez, berehala desagertu zen baso ilunean.

Halako batean arnasestuka aitonak zera esan zuen:

- Alferrik da, ez dugu inoiz harrapatuko. Baina... Harkaitz horien artean dagoena ez al da haitzulo bat?
- Bai, goazen ikustera!

Haitzulora hurbildu eta barrura sartu zirenean bi aldiz pentsatu gabe, sekulako oihuak entzun zituzten:

- Zein demontre dabil hor!!!

Aitona eta Jon guztiz izututa geratu ziren ez atzera ez aurrera. Haitzulo ilunetik gizon iletsu erraldoi bat ateratzen zen: Basajaun!

- Gu ... gu mendira paseatzera etorri gara soilik ...- esan zuen aitonak totelka.
- Alde nire begi bistatik! Ez zaituztet inoiz hemen inguruan ikusi nahi!!!
- Bai ... bai barkatuuuu, oraintxe bertan goaz- erantzun zion Jonek.

Eta biak korrika hasi ziren herrirantz eta ez ziren gelditu etxera iritsi arte. Jon konturatu zen aitonaren istorio guztiak benetakoak zirela, baina ... bazegoen kontu bat ulertzen ez zuena edo gutxienez asko harritzen zuena: aitona bera baino harrituago eta izutuago zegoen gertatu zenarekin. Batzuetan iruditzen zitzaion aitonak ordura arte ez zuela sinesten Basajaun benetakoa zenik.

Kezka hori betirako geratu zen Jonen pentsamenduetan, ez baitzuten inoiz gai horretaz hitz egin.